



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2010eko EKAINA

**EUSKARA ETA  
LITERATURA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JUNIO 2010

**LENGUA VASCA Y  
LITERATURA**

***Azterketa honek bi aukera ditu. Horietako bat erantzun behar duzu.***

***Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.***

- *Lehenbizi TESTU bat duzu.*
- *Testu bakar honen gainean eraikiak daude bi aukerak: A eta B. Bietako bat egin behar duzu.*
- *Aukera bakoitzak hiru atal ditu:*
  - *Irakurmena*
    - *Ulermenari buruzko galderak (2 puntu)*
    - *Gaia eta laburpena (2 puntu)*
  - *Kizkuntzaren/literaturaren inguruan (2 puntu)*
  - *Idazlana (4 puntu)*



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2010eko EKAINA

**EUSKARA ETA  
LITERATURA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JUNIO 2010

**LENGUA VASCA Y  
LITERATURA**

## **Txeketegia**

“Liburu elektronikoak merkeagoak dira konbentzionalak baino, baina, hala ere, garestiegiak!”, entzun diot irratitari. Musika eta pelikulak saretik jaitea zilegi ote den ari gara. Kulturak ordaindua behar ote lukeen. Museoetako sarrera librearena... Existentziaren kontzientzia dudanetik entzun dudan kontua da kulturaren garestiarena.

Jack Palance aktoreak Godard-en *Le mépris* pelikulan interpretatzen zuen bezero klasea datorkit gogora. Goebbelsen esaldia parafraseatuz, Palancek: “Kultura hitza entzuten dudan aldiro, txeketegia ateratzen dut”.

Prezioaren eta balioaren arteko oreka, balioaren araberako prezioa zaintzea, omen da justizia. Hala ikasi genuen. Eta ikasi genuenak egia baldin badio, kultura ez da garestia edo merkea. Liburu txarrak oso garestiak izan litezke, nahiz paper merkeenean eginak izan. Liburu onak, aldiz, ez dira sekula garesti.

Txeketegiak ez du kultura ontzen. Txeketegi faltak ere ez.

(Anjel Lertxundi, *Berria* 2010-01-14)



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2010eko EKAINA

**EUSKARA ETA  
LITERATURA**

**A AUKERA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JUNIO 2010

**LENGUA VASCA Y  
LITERATURA**

### **A.1.- IRAKURMENA**

- *ULERMENA ( 2 puntu)*

(Aukeratu erantzun egokiena. Aski duzu zenbakia eta letra jartzea: 1.a; 2.d;... )

#### **1.- Zer entzun du irratian?**

1. a. Liburu elektronikoak konbentzionalak bezain merkeak direla.
1. b. Liburu elektronikoak konbentzionalak bezain garestiak direla.
1. c. Liburu elektronikoak konbentzionalak baino merkeagoak direla.
1. d. Liburu elektronikoak konbentzionalak baino garestiagoak direla.

#### **2.- Kulturaren garestiarena...**

2. a. berak ikasi duen kontua da.
2. b. irratian entzun duen kontua da.
2. c. betidanik entzun duen kontua da.
2. d. kontzientziak esan dion kontua da.

#### **3.- Ikasi genuenaren arabera, kultura....**

3. a. merkea da
3. b. garestia da
3. c. beti izan da garestia
3. d. ez da garestia, ez eta merkea ere.

#### **4.- Egileak dio kultura ontzeko...**

4. a. txekeak falta direla.
4. b. txeketegia dela arazoa.
4. c. txeketegia behar dela.
4. d. txeketegia izateak edo ez izateak ez duela eraginik.

#### **5.- Liburu onak...**

5. a. beti izaten dira garestiak.
5. b. ez dira inoiz merkeak.
5. c. ez dira inoiz garestiak.
5. d. lehen bezain garestiak dira.

- *GAIA ETA LABURPENA (2 puntu)*

- GAIA (Eman esaldi bakar batean, testu honen gaia.)
- IDEIA NAGUSIAK (Azaldu testuan agertzen diren ideia nagusiak.)



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2010eko EKAINA

**EUSKARA ETA  
LITERATURA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JUNIO 2010

**LENGUA VASCA Y  
LITERATURA**

**A.2.- HIZKUNTZA ETA LITERATURAREN INGURUAN (2 puntu)**

• *MOLDATU ESALDIAK*

(Berridatz itzazu esaldiok parentesi artean eskaintzen zaizun bidez baliatuz.)

- “Liburu elektronikoak merkeagoak dira konbentzionalak baino, baina, hala ere, garestiegiak!”, entzun diot irratitari.  
(... **-(e)la...**)
- “Kultura hitza entzuten dudan aldiro, txeketegia ateratzen dut”.  
(... **bakoitz-** ...)
- Eta ikasi genuenak egia baldin badio, kultura ez da garestia edo merkea.  
(... **-(e)z gero...**)
- Liburu txarrak oso garestiak izan litezke, nahiz paper merkeenean eginak izan.  
( ... **arren** ...)

**A.3.- IDAZLANA (gutxienez 200 hitz ) (4 puntu)**

• *GUTUNA*

Musikaria zara eta salatu nahi duzu zure abestiak saretik jaisten ari direla. Horretarako, Egileen Elkarteko (SGAE) zuzendariari gutun bat idatzi behar diozu neurriak har ditzan.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2010eko EKAINA

**EUSKARA ETA  
LITERATURA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JUNIO 2010

**LENGUA VASCA Y  
LITERATURA**

## **B AUKERA**

### **B.1.- IRAKURMENA**

- *ULERMENA ( 2 puntu)*

(Erantzun galdera hauei)

1. Zein dira garestiagoak, liburu elektronikoak ala konbentzionalak? Zergatik?
2. Zergatik dio idazleak liburu onak ez direla sekula garesti?
3. Zergatik ez da kultura garestia edo merkea?
4. Zerk ontzen du kultura? Zergatik?

- *GAIA ETA LABURPENA ( 2 puntu)*

- GAIA (Eman esaldi bakar batean testu honen gaia)
- LABURTU TESTUA (gehenez, 5-7 lerro) (Azaldu testuan agertzen diren ideia nagusiak)

### **B.2.- HIZKUNTZA ETA LITERATURAREN INGURUAN ( 2 puntu)**

(Azaldu ondoko esaldi hauen esanahia)

- 1) “Kultura hitza entzuten dudan aldiro, txeketegia ateratzen dut”
- 2) “Prezioaren eta balioaren arteko oreka, balioaren araberako prezioa zaintzea, omen da justizia”.
- 3) “Existenziaren kontzientzia dudanetik”.
- 4) “Txeketegiak ez du kultura ontzen. Txeketegi faltak ere ez”.

### **B.3.- IDAZLANA (gutxienez 200 hitz ) (4 puntu)**

Iritzi artikulu bat prestatu behar duzu egunkari baterako .

Gaia: Internet eta Kultura

Ondorengo gidoia erabil dezakezu gaia garatzeko:

- Internetek kultura sortzeko erak aldatu ditu.
- Interneten bidez kultura denontzat.
- Internet eta egileen eskubideak.